

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
2 positibo berri	1.603 hildako	8 positibo berri	528 hildako
2.288 positibo guztira*	10 UCIn EAEn	5.379 positibo guztira	4 UCIn
*Hernanin 64 Astigarragan 21		Sendatuak EAEn: 17.856. Naf: 8.828	

Inmakulada ikastetxeak izena aldatu du oporretara joan aurretik eta orain Aratz ikastetxea du deitura

Ostiralean agurtu zuten ikasturtea, elkarrekin, eskolako patioan segurtasun neurriak bermatuz. «Konfinamendua eta gero elkar ikusteko eta ongi pasatzeko aukera izan zuten ikasleek», adierazi du Eli Sanguino ikasketa buruak.

HERNANI HEZKUNTZA

Orain arte Inmakulada izenez ezagutu den ikastetxea Aratz izatera pasa da aurtengo ikasturtea amaierara iritxi den honetan. Eli Sanguino ikastetxeo ikasketa buruak adierazi duen bezala «aldaketa hau gure aldaketa prozesuan eman dugun azken pausua da» eta orain horrela ezagutuko da herrian, Aratz deiturarekin.

Ikastetxe guztientzat urte arraroa, desberdina eta inoiz ezagutu gabea izan da aurtengo, baina amaierara iritxi da. Aratz ikastetxearentzat azken eguna pasa den ostiralekoa izan zen eta bertan bildu ziren ikasleak, lehenengo aldiz martxoaren bigarren astetik.

Eskolako azken egun horretan, goizeko 08:30etatik

12:45etara bitartean, talde desberdinak pasa ziren patiotik. «Konfinamendu luze hau pasa gero ikasleek elkar ikusteko eta ongi agurtzeko aukera izan behar zutela uste genuen, gure eskolan arlo akademikoa ez ezik arlo emozionala ere asko lantzen baitugu» dio Eli Sanguinok.

Segurtasun neurri guztiak bermatuz –txandakako sarrera irteerak 15 minuturo, ahokoak, tenperatura hartzea, hidrogelaren bidezko esku garbiketarako, segurtasun distantzia...–, ikasleek beraien lagunak eta irakasleak behar bezala agurtzeko aukera izan zuten.

Horretarako, gela bakoitza patioko leku jakin batean, leku irekian, bildu zen 45 minututan elkar ikusteko, segurtasun neurri ofizialak betez. Gainera eguraldiak lagundu zuen. **K**



Ostiralean irakasle eta ikasleak bildu ziren ikasturteari amaiera emateko elkarrekin.



Lagunak ikusteko gogoekin patioan eseri ziren Aratzeko ikasleak.

Kontrakantxa gaztetxean egitarau kulturala iragarri dute, bihar hasi bertso afariarekin eta ostirala bitartean

Bertso afarian izena emateko azken eguna gaur da, 17:00etatik 18:00etara, gaztetxean. San Joan egunean mus txapelketa antolatuko da

HERNANI GAZTETXEA

Kontrakantxan ere San Joanak ospatu behar ziren egunetan ekitaldi kulturalak antolatu dituzte bihar hasi eta ostiralera arte. Bihar, San Joan egun bezperan, bertso afaria dago iragarrita Aitor Bizkarra eta Andoni Rekondorekin.

12 euro kostatzen da afaria

eta aukera beganoa ere badago. Bertan afaltzeko izena eman behar da eta azken eguna gaur da 17:00etatik 18:00etara gaztetxean.

San Joan egunerako, hau da etzirako, mus txapelketa antolatuko dute Kontrakantxan. Izenematea egunean bertan, 17:00etatik 17:30etara eman beharko da. Guztira 16 bikote

egongo dira eta bikoteko 5 euro ordaindu beharko da. Lehenengo saria: ardo botila, bi kamixeta, Otsahien garagardoa eta gazta izango dira. Bigarren saria: Otsahien garagardoa eta bi kamixeta izango dira.

Ekainaren 25erako ez dago ekitaldirik antolatuta, baina ekainaren 26an, ostiralean, poesia errezitaldia egongo da, 22:00etan hasita. *Madarikatuon biltzarra* du izena.

Kontrakantxa gaztetxetik mezu argia helarazi nahi dute segurtasun neurri buruz. Osa-

sun eta segurtasun irizpideak beteko dira. %50eko aforoa izango da ekitaldi guztietan eta ordutegiak errespetatuko dira.

Karl Marx-en 'Kapitalaren lehen liburuen lanketarako irakurketa taldea

Bestetik, Kontrakantxatik adierazi dute, datozen asteetan Karl Marx alemaniar filosofo, politika eta ekonomiaren pentsalaria eta komunismoaren aitzindariaren *Kapitalaren* lehen liburuen lanketa kolektiborako irakurketa taldea antolatuko

duela. Horretarako, Euskal Herriko militante sozialista ezberdinek eskaintako baliabideei jarraituko diete.

Irakurketa taldean parte hartu nahi duenak Kontrakantxa bertan jarri behar du kontaktuan.

Urtarrilera arte iraungo du eta helburua «kapitalismoaren kritikarako bitarteko teorikoak eskaintzea da, lanabes teorikoa izango da dinamika», eta lehen-tasunezkoa den beste zeregin bat «idazki marxistak euskeratzea» izango da. **K**

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

GAUR Giro egonkorra jarraituko du. Alabaina, goizeko lehen orduetan behe-laino dezente izango dira ipar isurialdean.
Min.14° / Max.24°

BIHAR Egingo du eta 30 gradura iritsi daitezke tenperaturak kostaldetik gertu. Zerua oskarbi eta hego-ekialdeko haize suabea ibiliko da.
Min.15° / Max.28°

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Erretiroko Auzo Urtia

GOZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gauez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

EUSKO JABURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Plazan pentsiodunen elkarretaratzea egingo da gaur hiru hilabete ostean

Arkupeetan elkartuko dira, eguerdiko 12:00etan, bilera bat egiteko, beharrezko segurtasun neurri guztiak hartuta.

HERNANI PENTSIODUNAK

Jubilatuak elkarretaratzeak bueltan dira eta gaur 12:00etarako bilera deitu dute Plazan udaletxeko arkupeetan. Bertan elkartzen ziren astelehenero, erretiratuak eta pentsiodunak, beraien esku-bideak aldarrikatu eta pentsio eta bizitza duin bat izatea eskatzeko. Koronabirusagatik alarma egoera ezarri baino lehen izan zen hori, baina eten egin zituzten deialdiak, martxoan.

Hiru hilabete hauetan, ordea, ez dute galdu grina, aldarrikape-



Pentsiodunak udaletxeko arkupeetan bilduko dira gaur, 12:00etan.

nekin jarraitzeko.

Beharrezko neurriekin, hurrengo pausoa

Landuko dituzten gaien artean daude, besteak beste, honakoak: pentsio publiko eta duinak defendatzea, «orain eta betirako»; osasun publiko eta kalitateazkoaren alde egitea; nahi gabeko bakardareri konponbidea bilatzea; eta pobreziaaren aurka egin eta RGI

duina eskatzea

Elkarretaratzea egiteko beharrezko segurtasun neurriak hartuko dituzte. Guzti horiekin, bat egiteko deia luzatu diete, «adinekoen, pentsioen eta zaharren egoitzen egoerarekin kezkatuta» dauden guztiei, eta egoera horrek eragiten dienei. «Erretiratuek eta pentsiodunek ahotsa eta botoa ditugu», nabarmendu dute deialdian. **K**

San Joanetako eliz ospakizunetan hainbat aldaketa egingo dira

Bihar San Joan bezperan ez da arratsaldeko mezarik izango. San Joan eguneko meza nagusia 12:00etan ospatuko da eta ez 11:00etan.

HERNANI ELIZA

Aurtengo San Joan Jai eguna oso berezia izango da eta herrian festa ofizialik izango ez denez gero, eliz ospakizunetan hainbat aldaketa egingo dira. San Joan bezperan, bihar asteartean, 19:00etan Salbea eta San Joanen goratzarrearekin omenduko da zaindaria. Ez da arratsaldeko mezarik izango.

San Joan egunean, berriz, goizeko 09:00etako meza parroki elizan ospatuko da, Eta meza nagusia 11:00etan izan ordez, 12:00etan ospatuko da.

Ostegunean, hilak 25, 11:00etan, Elorribiko zubian duela 42 urte hil ziren sei herri-tar (eta beste bat geroago) gogoan izango dituzte bertako mezetan.

Larunbatean konfinamentu garaian hil zirenen aldeko hi-

leta-mezak ospatzen jarraituko dute.

Premiazko bulegoa

Premiazko gauzetarako parroki bulegoan hartuak izateko deitu egin behar da alde zurretik bertako telefonora, (atean jarrita). Mezatarako asmoak edo presa gabeko enkarguak telefonoz edo parroki-etxeko buzoian idatziak sartu edo sakristian eman daitezke, meza aurretik edo ondoren. Bada Caritaseko beste telefono bat bulegoko sarreran, oraingoz harriera eskainiko zaie alde zurretik deitutakoei. **K**

Kulturaz gozatu daiteke astean zehar

San Joanen faltan musika eta bertsolari saioak antolatu dira bihar, etzi eta ostegunean.

HERNANI KULTURA

San Joan festak bertan behera geratu dira aurten, baina kulturak izango du merezi duen tartea Hernanin Kulturaz gozatu, elkar zainduz egitasmoarekin. Honela, herriko kultur eragileek eta kultur arduradunek elkarlanean egitarau bat prestatu dute.

Bihar, alkatearen agurra, eta gero omenezko suziriak botako

dira auzoetan eta txistulariak, musika banda eta musika eskolako kideak alaituko dituzte auzoak.

Arratsaldean, 17:00etan eta 19:30etan, familientzako bi musika emanaldi eskainiko dira kiroldegiko pistan *Epa Txiki* izenburupean eta *Demo-de Quartet* taldearekin. Amaitzeko 20:00etan musika banda eta txistulari banda ibiliko dira

auzoetan barrena. Etzi, Atsegindegin ariko dira bertsotan Maialen Lujanbio, Nerea Elustondo, Agin Laburu eta Beñat Gaztelumendi. 18:30etan hasiko da saioa. 20:00etan musikaren txanda izango da. Kilimak talde hernaniarrak eta Xabi Solano musikariak kiroldegiko pistan kontzertua eskainiko dute.

Ostegunean kontzertua egongo da, 20:00etan, eta leku berean, baina kasu honetan Birtartean eta Iñaki Salvador, Garbiñe Insausti eta Nahia Vallerekin batera ariko dira. **K**

Emakumeon plazako muralerako argazki saioak amaitu dira 140 partaiderekin

ASTIGARRAGA BERDINTASUNA

Amaitu dira Emakumeon* Plazako murala osatzeko egin diren argazki saioak. Partaidetza ikaragarria izan da, guztira 140 partaide egon dira egindako 14 saioetan. Udalak eskerrik beroenak eman nahi dizkie parte hartu duten emakume* guztiei. «Pena handiz partaide batzuk argazki saioetara ezin joan utzi ditu aldaketak». Astigarragako Emakumeon* plaza herriko emakume* guztiek osatzen dute, argazkietako irudietan azaldu edo ez. Argazki saioak amaitu badira ere, Emakumeon* plazako eraikitze-lanak aurrera jarraitzen dute. Udalaren asmoa aurrerago elkartu, ateratako argazkiak ikusi, partekatu eta partaide bakoitzak bere oroigarria izatea da.

Zenbait dirulaguntza eskatzeko epea zabaldu du Udalak, berriro ere

ASTIGARRAGA DIRULAGUNTZAK

Covid-19aren ondorioz, administrazio epe guztiak etenda gelditu ziren, eta une horretan Udalak dirulaguntza deialdien izenemateak irekita zituen: Kultura, euskara eta jai arlokoak; kirol arlokoak; berdintasun arlokoak eta gizarte zerbitzuen arloko hainbat dirulaguntza. Dagoeneko administrazio epeak ireki direnez, aipatutako dirulaguntzatan izena emateko aukera dago, berriz ere.

Udako kanpus teknologikoan izena emateko epea irekita, gaur arte

HERNANI UDALEKUAK

«Erabilera ona eta sorkuntza» sustatzeko, udaberriko itxialdiaren ondoren, Udako Campus Teknologikoan UDALAB IDEOn, izena emateko aukera dago. Bi txanda egingo dira: ekainak 29tik uztailak 3ra eta uztailak 6tik 10era, Aratz Ikastetxean, 5-16 urte bitartekoentzat. Bietan ordutegi bera izango da: 09:30-13:30etara.

Goizueta-Hernani linea, udako ordutegian

GOIZUETA AUTOBUSA

Goizueta-Hernani autobus lineak gaur hasiko du udarako ordutegia. Goizuetatik irteerak goizeko 09:00etan eta arratsaldeko 15:00etan izango dira eta Hernanitik eguerdiko 12:00etan eta arratsaldeko 19:00etan.

Manifestazioa, bihar Plazatik abiatuta

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Lehenbailehen ekarri behar ditugu lelopean manifestazioa antolatu da bihar, 19:30etan, Gudarien Plazatik abiatuta.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

EUSKO JABURLARITZA GOBIERNO VASCO

CEPA Hernani HHI
Helduen hezkuntza

Matrikula epea ekainaren 22tik 30era arte

Matrikula egiteko bi modu:

☎ **943 33 53 18** ✉ **012076aa@hezkuntza.net**

Ordutegia: 10:00 - 14:00

- DBH-ko TITULUA lortu
- Hizkuntzak: Ingelesa
- Zure ikasketak jarraitu
- Atzeritarrentzako gaztelera